

MUXIKA. Briska eta mus txapelketen finalak be, zapatuan jokatu dira, Ariatzako txokoan

Herriko bertsolariak omenduko dauz zapatuan Itxupi euskera taldeak

Omendutako bertsolarien artean, Monasteriotarrak, Enbeitatarrak, sarduitarrak... dagoz

Onintza Enbeita

Aurtongoa izango da hamabigarren Korrika, eta hamabigarren omendua bertsolaritza izango da. Hori dala eta, Muxikako Itxupi euskera taldeak, herriko bertsolariak omenduko dauz, zapatuan, Korrika Kulturalaren barruan.

Emon be, bertsolari asko emon izan dauz Muxikak. Batzuk famatu egin izan dira. Beste batzuek, oster, lagun artean egiten dabe bertsoan. Omenaldia, baina, danentzako izango da. Bereizketa barik omenduko dira Muxikako bertsolari guztiak: Juan Jose Giñerradi, Monasteriotarrak, Enbeitatarrak, Sarduitarrak, Irene Aguiria, Iturri...

Zapatu gaueko 21:30 aldera egingo dan afarian omenduko dira bertsolariak, baina aurretik mus eta briska txapelketako finalak jokatu dira. Herriko txoko bakoitzean jokatu dira —bertako bazkideen artean— mus eta briska kanporaketak, eta zapatuan, Ariatzako txokoa jokatu dira finalak. Ostan, afaria eta omenaldia izango dira.

Afarira joan gura dabenek, Muxikako edozein txokotan, Taberna Barrin (946 252 370) edo Etxeko Jatetxean (946 253 495) emon beharko dabe izena.

Korrika bera, baina, datorren barikuan zortzi pasatuko da

Muxikatik. Martiaren 30ean helduko da lekukoa Autzagantetik behera. Iluntze aldera helduko da Muxikara eta Gernika-Lumorantzko bidea egingo dau gero.

Handik, Kortezubi, Gaitegiz-Arteaga eta Kanala igaroko dauz, Laidako hondartzara heldu arte. Laidatik, Sukarrietako San Antonio hondartzarainoko bidea, arraunean egingo dabe, eta Sukarrietatik Bermeora barriro kaminoz ekingo jako Korrikari. Bermeon amaituko da

Korrikaren Busturialdeko ibilbidea eta Bakiorantz abiatuko da Uribe Butroeko ibilbideari ekiteko.

Baionarako autobusa

Martiaren 29an urtengo dau Korrikak Gasteizen, eta apirilaren 9an helduko da Baionara. Muxikako Itxupi euskera taldeak, autobusa antolatu dau Baionara joateko.

Autobusak, apirilaren 8an goizeko 8:00etan urtengo dau, Kurtzerotik (Etxeko Jatetxeko

KORRIKA

Korrika kulturalaren egitaraukoa da zapatuko ekitaldia

aparkalekutik), eta 500 pezetan izango da. Taberna Barrin dago izena emateko zerrenda. Baionara joateko gogoz dagoanak, bertara joan edo telefonoz deitu eta izena emotea baino ez dauka.



ONINTZA ENBEITA

Muxikako bertsolari batzuk, bazkaritan, Santa eskeko errondaren ostean.

BERMEO. Herritarrak ez datoz bat Amannek salbamendu ontziaren inaugurazioan esan ebanagaz

Izozkailuari konponbidea emoteko alkarrizketetan parte hartu gura dau herriak

O. E.

Hasikera batetik sortu dauz kontraesanak Bermeoko arrain izozkailuak. Herritarrak ez dira bat etorri Erroxapeko moilan izozkailua eregiteagaz, eta hainbat bider erakutsi dabe euren ezadostasuna.

Alvaro Amann Jaurilaritzako Herri Lan sailburua Bermeon egon barri izan da, salbamen-durako ontzi barria inauguratzen. Sailburuak bertan egon ziran kazetariei adierazo eutse-nez, «herriak ez dau

izozkailuaren ganeko alkarrizketetan parte hartuko. Bermeoko Udala, Eusko Jaurilaritza eta Bermeoko kofradiaren artean izango dira alkarrizketak. Bermeoko portuak sektorearen preminen arabera egin behar daualako aurrera».

Herriaren Alde plataformako kideak, haserre dagoz, Herri Lan sailburuaren berba horreak: «barriro be baztertu gaitue, zuzenean kaltetzen gaituan arazo baten konponbidearen aurrean».

Herriaren Alde plataforma

ALVARO AMANN

«Herritarrak alkarrizketetatik kanpo geratu dira, sektorearen beharren arabera egin behar dalako aurrera»

izozkailuari konponbidea emoteko sortu zan taldea da. Bide administratibotik egin dabezan ahaleginetatik ezer ez dabenez lortu, epai bideari ekin deutso, portuko beharrak dirala eta.

Alegazinoen erantzuna

Dana dala, Herriaren Alde plataformari oraintxe emon deutsie portuko beharrei egindako alegazinoen erantzuna. Eusko

HERRIAREN ALDE

«Barriro be baztertu egin gaitue, zuzenean kaltetzen gaituan arazo baten konponbidearen aurrean»

Jaurilaritzak Herriaren Aldekoei erantzun deutsenez, «egia da izozkailua ez dagoala leku egokian, paisaiaren ikuspuntutik begiratu ezker».

Izozkailua egin zanean, Erroxape moilako ingurune hori ez zan lur eremu eraikigarria. Gerrogo, portua zaharbarritzeko plana onartu zanean, sailkatu zan eraikigarri izozkailua dagoan lur orubea.

LAGURAEAN

GERNIKA-LUMO

Zapatuan antzerkia izango da Elai Alai aretoan

Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona izeneko antzez-lana izango da, zapatuan, Elai Alai aretoan. Oraintxe zabaldu barri da aretoa, eta zapatukoa izango da lehenengo antzerki emonaldia. Iluntzeko 20:00etan eta gaueko 22:30ean izango dira emonaldiak. Iluntzeko emonaldia euskeraz izango da, eta gauekoa gazteleraz. Antzez-lana Txalo Produksioarena da.

Datorren eguaztenean hasiko da Euroaren ganeko ikastaroa

Gaur zortzi hasiko da Euroaren ganeko ikastaroa, Gernika-Lumoko dendarientzat zein tabernarientzat. Bertako komertzio bulegoak eta Euro Bizkaiak antolatu dabe ikastaroa, eta eguazten arratsaldeko 14:30ean hasiko da. Ikastaroa kultur etxean egingo dabe.

Zine Klubak ibilbide barriari ekingo deutso datorren barikuan

Gernika-Lumoko zine klub alkartearen barikuan hasiko da asteroko emonaldiak egiten. Zinema areto zaharreko eguna eta ordua mantenduko egingo dira, eta, beraz, barikuro izango da zine kluba, iluntzeko 20:30ean. Barikuan izango da lehenengo filma Elai Alai aretoan eta Tim Robinsen *Abajo el Telón* aukeratu dabe estreinaldirako. Martiaren 30ean, oster, Guy Ritchie zuzendariaren *Cerdos y diamantes* ekarriko dabe areto barrira.

BERMEO

Umeentzako ipuin kontalaria izango da barikuan

Umeen artean irakurzaletasuna bultzatzeko, hainbat ekintza antolatzen dauz Bermeoko Joxemiel Barandiaran udal liburutegiak. Ekitaldiotako bat ipuin kontaketa saioak izaten dira. Barikuan, esate baterako, *Oihulari Klown* izango da, arratsaldeko 18:00etan hasita, umeen liburutegian. Hilaren 31n, oster, Itziar Zubizarreta izango da umeen liburutegian, eguerdiko 12:00etan. Zapatu eguerdian ekitaldi hori antolatzearen arrazoiak, martiaren 31n umeentzako liburuaren nazioarteko eguna ospatzen dala da.